

AUZO BIRA

AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren azalpena



HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

ZABALGUNE. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-15
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Iturola

PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
6	9	15

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Urko Lazkoz Fernandes, Zerbitzu publikoetako delegatua; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Renteria eta Leire Kortajarena.

HIZKUNTZA:

Saioa euskaraz egin da eta berehalako itzulpena egin dio Partaidetza teknikariak bizilagun bati.

0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta landuko duguna azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak elebitan izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatzea). Zona honetan:
 - o Marielutsetik Urbietarako malda
 - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
 - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa.

Ondoren, bereziki Zabalgune zonaldeari dagozkion eskuhartzeak azaldu dira:

- Parkeen eraberritzeak
- Eremuak naturalizatzeko eskaera – babesgune klimatikoa
- Eguzki plakak – enherkomekin hitzarmena
- Zirkulazioa
- Aparkalekuak
- Oinezkoen afera
- Erregistro bidezko eskariak

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaurgarrian bizi diren 12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dioenari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Gabriel Zelaia: zuhaitzen mantenua eta landaketa, Gabriel Zelaia kirol pistaren lurzorua, txotx denboraldia, airearen kalitatea
- Florida 1-20: airearen kalitatea eta zarata, zuhaitzen landaketa, txakur kakak, Florida parkea berdetzea eta atseginago egitea, herrian dagoen usaina, txotx denboraldia, aparkalekuetako topeak

2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tartea eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Galarretan zaborrontziak	<p><i>Galarretako bizilagun batek adierazi du merkatal zentroetako bezeroek, sarri, zikinkeria lurrean uzten dutela. Honi aurre egiteko zaborrontziak eskatu izan ditu, baina Udaletik ez du erantzunik jaso. Eskaera 20225-7-10ean egina (2025-00000007669).</i></p> <p>Udaletik eskaera berriro ere egiteko eskatu zaio, eskaera bideratu ahal izateko.</p>

INGURUMENA	
Florida auzoko zarata	<p><i>Bizilagun batek, auzoko trafiko pilaketari lotuta, Florida malkarreko zarataren gaineko kezka ekarri du.</i></p> <p>Udaletik azaldu da zarataren mapa edo azterketa egin dutela, eta ikusi dela zarata iturri nagusia ez datorrela herri barrutik, kanpotik baizik (A15a, bereziki).</p>
Zinkoenea azpiko eskaileratako pinua	<p><i>Bizilagun batek azaldu du Zinkoeneatik beherako eskaileratik gertu dauden 3 zuhaitzetako 1 (pinua) asko hazi dela azken urteotan, bereziki haizea dabilen egunetan, bizilagunen kezka sortuz. Horren azpian butano depositu bat dago.</i></p> <p>Udaletik teknikariak bidaliko dituzte, egoera aztertu eta horrelakoetan egin beharreko txosten teknikoa prestatu dezaten. Horren arabera hartuko dira behar diren neurriak.</p>
Txakurren pixa	<p><i>Saioan aipatu da, bereziki soportalak dituzten etxeetako zutabeetan txakurren pixek sortzen duten zikinkeria. Kutxabankeko iskinatik anexorako bidea ere pixaz josita dago.</i></p>

	<p>Udalak azaldu du, kakaz gainera, pixen gaia ere zenbait herrietako ordenantzetan sartzen hasiak direla. Etorkizunari begira hau aukera bat izan daiteke, gaur egun jasota ez dagoenez ez bait da betebeharra. Bitartean, kontzientziazio kanpaina bat jarriko da martxan.</p>
--	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

KULTURA	
Kultur aretoak auzoetan	<p><i>Bizilagun batek galdera luzatu du: egingo den areto berriak eskatuko duen inbertsioa ikusita, ez al da komeni kultur inbertsio hori auzoetara ere eramatea?</i></p> <p>Udaletik erantzun nahi da auzo guztietan kulturguneak jartzeak inbertsio ekonomiko handia suposatzen duela eta Udalak ezin duela bere gain hartu. Biteri txiki gelditu izana (eta ondorioz, horrek baldintzatzen duen programazio kulturala) da herrigunean beste eraikina egiteko erabakia hartzeko arrazoi bat. Baina honekin batera, bere egunean, egoitza eta eskolak herrira gerturatzeko helburuz diseinatutako estrategiari ere erantzuten dio.</p> <p>Hala ere, bada ere Udalaren erronka kultur ekipamendua auzoetara ere eramatea; Florida 08n aurreikusia dago hala izatea.</p>

HIRIGINTZA	
Florida auzoko mugikortasuna	<p><i>Bizilagun batek azaldu du auzoko trafiko altuak eta aparkaleku beharrak sortzen dituen zailtasunak azaldu ditu, oreka lortzea erronka handia delakoan. Honen aurrean, oinezkoen beharrei lehentasuna ematea garrantzitsua dela aipatu du, auzoko zenbait zonaldeetan mugikortasun arazoak dituzten herritarrek dituzten zailtasunak azalduz.</i></p> <p><i>Beste bizilagun batek ere gaiaren inguruko kezka adierazi du; eraikitzekoa den Florida 08 etxaldeak ez ote duen egoera gehiago tenkatuko? Gainera, auzoko errepideak autoentzat prestatuta dagoenez, ibilgailu luzeagoek maniobra egiteko zailtasunak dituzte eta sarritan espaloiairen gainera igo behar dira, honek espaloiak hondatuz.</i></p>

	<p>Udaletik egoerak sortzen dituen gaineko arazoen gaineko kezka partekatu da. Gaur egun egiten ari den Mugikortasun Planaren baitan neurgailuak jarri dituzte trafikoa non pilatzen den identifikatzeko eta ikusi da Florida puntu berezi bat dela.</p> <p>Diseinatzen ari den Mugikortasun Plan honek ez du soilik gaur egungo egoera kontuan hartzen, baizik eta hemendik 10 edo 20 urterako proiektzioa ere baloratzen du. Enpresa aditu batek egindako azterketa horrek Florida 08 etxalde berriaren inpaktua neurtu zuen eta emaitzek adierazi zuten herriak sostengatu zezakeela proiektua. Horregatik erabaki zen aurrera egitea etxaldearen eraikuntzarekin.</p>
<p>Florida auzoan autoen gehiegizko abiadura</p>	<p><i>Bizilagunek auzoan (Florida malkarrean eta Zinkoeneako errotondan, bereziki) ibilgailuen abiadura murrizteko neurri berriak eskatu dituzte, egungoek (koxkak, abiaduraren mugak...) ez bait dute helburua betetzeko balio.</i></p> <p>Udaletik, egungo neurriak gogorarazi dira (abiadura moteltzeko resaltoak, Zinkoeneako zebrabideak altxatuta daude eta tarte bat adokinatua dago). Hori osatzeko, hurrengo asteotan jarriko dituzten radar pedagogikoak ere aurkeztu dira.</p>
<p>Florida auzoa eta autobiarako sarbide berria</p>	<p><i>Bizilagun batek, auzoko trafiko pilaketa txikitzeko proposamen moduan, autobiarekin lotzeko aukera aipatu du.</i></p> <p>Udalak aipatu du aukera ezberdinak baloratu izan direla, nahiz eta eskumena Aldundiarena izan. Ttrenbide azpitik igarobidea egitearen aukera, gastu handiegia izateagatik baztertu da. Gainera, Galarreta ingurutik autopistaren sarbide berria egitea onartu berri dutenez, ez dute uste epe motz-ertainean maila bereko beste proiekturik onartuko denik.</p> <p>Horri gehituta, sarbide gehiago egiteak herriari ekarri ditzakeen beste albokalte bat ere aipatu da; pasozko herria bilakatzea, ospitalerako bidean egoteagatik, adibidez, honek berriro ere trafikoa handituz.</p>
<p>Zinkoeneako zebrabidea</p>	<p><i>Saioan aipatu da Zinkoeneako errotondatik Floridako malkarrera joateko zebrabidea oso urrun dagoela eta interesgarria litzatekeela Udaltzaingoaren inguruan beste bat egotea.</i></p>

Floridan kaleko komun gehiago	<i>Bizilagun batek, jada badaudenez gainera, kaleko komun gehiagoren beharra ekarri du. Gainera, aipatu du daudenak askotan itxita daudela.</i>
Autobusaren parada	<i>Auzoko zenbait zonaldeetan bizi diren herritarrentzat egungo paradak ez daude oso eskura. Badago aukera gehiago jartzekoa?</i> Udaletik azaldu nahi izan da eskaera hau Aldundiari behin eta berriz egin zaiola. Aldundiak honen gaineko erabakiak Udalarekin elkarlanean hartzen saiatzen bada ere, eskaera honi erantzuteko ez du ezer egin orain arte. Hala eta guztiz ere, egin ohi diren koordinazio bileretan eskaera bideratzen jarraituko da Udaletik.

3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- **Hirigintza eta mugikortasun** alorrak izan du protagonismo gehien, trafikoaren eta espazio publikoaren mantentze eta garbiketa lanen inguruan bereziki.
- **Kultur-ekipamenduen** inguruko kezka ere jaso dira.
- Dena aktan jasota geratu dela adierazi da eta fitxetan idazten den hori ere gehituko dela.
- Partaidetza eta deboluzio espazioen **balorazio positiboa** egin da, eta egindako lana aitortu da ere.
- Egin diren ekarpenak **aktan jasota** geratuko direla gogorarazi zaie bertaratutakoei.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezka, banatu zaien fitxa batean.

1) Udal arduradunek egin duten aurkezpenetik zerk piztu dizu arreta? Zer dela eta?

- Kulturgunea bultzatzea auzoko beharrei erantzuteko.
- Izpizua kaleko lorategien eta atez atekoari konponbidea ematea.

2) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?

- Biterin jarritako pantaila bezalako bat Zinkoenean ere jartzea.
- Boitilen tapoientzako kontainerra.
- Mañe / Flaker plaza berrian ibilgailuen sarrera oztopatzeko piboteak jartzea. Penagarria da baldosak hondatzen ari direla, bere egunean egindako lan txukuna.
- Zinkoenea eta Floridako eliza arteko bidean, trafikoaren gaiari eta pertsonen insegurtasunari etorkizunerako ikuspegia izango duen irtenbidea ematea.
- Auzora "kaxko pegatina" zabaltzea, eskualdeko aparkaleku bihurtu izanari erantzuteko.
- AMR enpresak botatzen duen kea.

3) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?

- Florida auzoko putzuak kentzea eta espaloiak konpontzea.

4) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke balioan?

- Guztiz beharrezkoak
- Garrantzitsuak, baina maiztasun gutxiegiarekin
- Errekaldeko topa Hernaniraino luzatzeko aukera.